

# Desapuntatzen noa!

Alazne Untxalo Erregerena



Eskolaz kanpo hamaika ekintzatan apuntatzen gara. Batzuk gure zaletasunak dira eta, beste batzuk, gurasoek “animatuta” edo erdi-behartuta egiten ditugunak. Batzuetan, zama sentitzeraino. Alazne ausartu da gurasoei esatera: “Aski da! Desapuntatzen noa!”.

## ***Doinua: Bertsuak jarri dizkat*** **Hiru puntuko kopla**

- 1 Goiz osoa eskolan beti lan eta **lan** arratsaldero nabil gaur hemen bihar **han** erritmo jasangaitz hau ezin dut **eraman**.
- 2 Ez naiz ongi sentitzen ez nago **gustora**. Liman, Iker, Saioa, Mikel edo **Nora** haiekin jolasteko behar dut **denbora**.
- 3 Solfeoa bi orduz zuri zein **kortxea...** Zergatik nahi zenuen tronpeta **jotzea** etxean ez baduzu nahi **entsaiatzea?**
- 4 Partida dugunean harmailan **barrena** aita zergatik jartzen zara horren **pelma** parte hartzea bada **garrantzitsuena**.
- 5 Eta galdu ezkerro marmarti ta **kexu**. Nik hau ez dut gustuko usain **dezakezu** begira, nahi baduzu, apunta **zaitez zu!**
- 6 Euskal dantzetan edo kantalditan **berdin** guraso oro dago **Smartphonearekin** obsesionatuta **grabatzearekin**.
- 7 Gaur nazkatu da zuen alaba **gaztea** dena utzi behar dut ta izan **askea** nire eskubidea baita **jolastea**.
- 8 Izanen al zarete hau ulertzeko **gai** baietza bada ongi bestela **izorrai!** Nire aisialdia ez baitago **salgai**.